

AKTA

Bilera eguna: 2012.07.09

Bilera tokia: Kultur Etxea

Bertaratuak: Amaia Urkola, Joanna Domingo, Cristina Salsamendi, Garbiñe Manterola, Imanol Manterola, Pello Orbañanos, Eneritz Odriozola, Miguel Nacenta.

Hasiera ordua: 19:00

Bukaera ordua: 21:00

Gai ordena

1. Mugikortasuna. Dokumentu bateratua
-

Bileraren garapena

Mugikortasunari buruzko dokumentu bateratua landu dugu, hasi eta buka

Imanolek dokumentuaren maketazioa egingo duela esan du.

1. Sarrera

Bere horretan uztea erabaki dugu.

2. Oinezkoak

Sarrerako bi parrafoak sinplifikatzea erabaki da. Garbiñek egingo du hau. Aita Lertxundi hiri barruko gunea izan dadila azpimarratu beharko da. Beste zenbait aldaketa txiki egitea erabaki dugu.

3. Bidegorriak

Ontzat eman dugu aho batez atala.

4. Motordunak

Helburu orokorra herri barrua oinezkotzea dela azpimarratu beharra. Kotxe aparkalekuen zenbaketa berri bat egin eta dauden datuak aztertuz justifikazioa eta proposamenak bildu.

5. Beste zenbait puntu

- Udalari gogoratu behar zaio aldian aldian bizikleta heldulekuak libratu egin behar direla, askotan bizikleta zaharrak pilatzen baitira eta helduleku falta sumatzen da hainbat puntutan.